

ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

170n. Zenbakia Urterrilla
1993



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



BAKIO-ELEIZEA

- ITXAS-ERTZEAN APAL
- MUIÑO-GAIÑEAN ZABAL
- ONDO BARRIZTUTA EDER
- UDA-ZALEEN BAZTER
- EUSKALERRIAREN ZATI
- BASERRITARREN ABI

ZENBAKI ETA ABAR BATZUK

Azken amarkadan, euskaldunen kopura %5 igo da Euskal Autonomi Alkartean.

Euskal Estadistika Erakundeak, (EUSTAT) euskereari dagokiozan izkuntza gaitasunari buruzko, 1991'eko datuak oso positiboak dira, azken amar urteotan, euskaldunen eta ia euskaldunen kopuruak, 5 puntuko igoera izan dabe.

Euskaldunak, % 21,5'etik % 26,7'ra igo dira. Eta

Ia euskaldunak, % 14,5'etik % 19,5'era.

Eskualderik euskaldunena, euskaldunik geien daukana, Gipuzkoa da % 49'gaz.

Gero Bizkaia dator % ko 19'gaz. Eta azkenik Araba % 10'egaz. Araba'k gorakada aundia egin dau: 81'ean % 4 bakarrik ziran eta aldaketa itxaropentsuenak, gazte-txoen artean egin dira: 5-9 urtekoen artean, euskaldunen kopurua bikoiztu egin da 10 utetan % 20'tik 40,1'era igoaz. Ia euskaldunak be, % 10,9'tik 30,9'ra igo dira, erdaldunak 30 puntura jatsi diran bitartean.

1991'ko erroldak diñonez, EUSKAL AUTONOMI ALKARTEAK, 2.104.041 biztanle daukaz: 1981'ean baiño 37.768 gitxiago.

(EUSKAREAREN BERRIPAPERERA - izkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia) Irailla

Bestalde, Buesa, Ezkuntzako aolkulariaren esanetan, gure Euskal Autonomi Alkartean, 16.000 ume gitxiago izan dira eskoletan. Bertako arduradunen datuakaz, urterro bildurgarrizko jatsiera egiten dau ikasturtea astean eskolaurreko ume kopurak. Biztanlegoaren kopuru osoa zaartzen doa; zaartu egin da.

Euskareari dagokionez, umeek jarraitzen dabezen ikastaro ereduak ikusita:

A - ereduak, dana erdera, euskerea ordu bete bakarrik asignatura lez % 57'gaz, geiengoa izaten jarraitzen dau.

B - ereduak, izkuntza bietan erdizka, (bilingue) % 18'k jarraitzen dau.

D - ereduak, euskera utsean, erdereak, (españera) asignatura lez bakarrik daukenak (Ostera, Urrillako Berri Papera'k AURTEN ERE guraso geienek B ta D autu dituela) % ko 24'k.

Eta, orain artean esan ez dana diño Jose Luis Davila, aolkulariordeak: euskera asignatureak "A" ereduak utsen bat da-daukala, azkenean % 70 ikasle bertan kateatuta geratzen diranean... Eta zer dala ta ete dan, ume bat es-

kolan 3 urtegaz sartuta, 4 ordutan euskera ikasten ibili eta 16 urtegaz euskerarik jakin barik urtetea?...

Ez dakit zenbateraiño errazoa edo errazoirikeza izango dauan ori esatean. Lenengo esan bearrekoa, euskerea eskolan sartu zala 10 urte izanik, orain, 16 urtegaz euskera barik urtendakoak, umetan 6 urtegaz asi zirala euskera ikasten eta ez 3'gaz. Alan da be, naiko asti edo zeozer beintzat euki dabe ikasteko.

Bai, alan da baiña... Izkuntza ikastean, zer-ikusia irakasleak, ikasleak, metodoak eta giroak daukie. Olan aintziñatik batxillerrean, frantzes, ingeles edo aleman ikasten ibili eta azkenean ezer jakin barik urteten eben askok. Ostera batzuk zeozer ta geiago be ikasten eben

i Me dice la hora por favor?- itaundu eustan kalean, 10 bat urteko neskato batek.

Amabiak eta ogetabost-erantzun eustan. Zure gurasoak kanpokoak dira baiña zu emengoa zara: emen jaioa ta emen bizi zara; euskeraz jakin bear dozu inglesa baiño lenago esan neutsan alkarregaz berbetan, kale ertzerañño eldu eta banadu arte.

Ama Birjiña'ren egunean, eberdian, Arantzazu'n, elizaurrean, errezkadan, saltzaile ugari. Euroatik bateri, gaztaia zenbatean galdetu geuntsanean, erderaz esateko esan euskun: ixilik, alboko saltzaileagana igesi geuntsan...

Gero Oiñati'n bazkaltzean, andrazko gazte biri euskeraz egin geuntsanean, parkatzeko esan euskun, baiña ez ekiela euskerarik! Biok urteak eroiezen Oiñati'n biziten. Bata, neskea Altsasu'koa zan. Bestea, andra gaztea, kanpokoak, berak esan euskun, euskerea azkenengo eskola urtean bakarrik emon ebal. Olango askok, naiz etxeko naiz etorkin, euskerea zertarako esango dabe...

Euskaldunak geitu izango dira, "paperak" diñoenean olan eta erdal lekuetako umeetatik be entzuten dogu euskeraz ederto ikasi dabiela. Eta gure artean be ba-dagoz olakoak... Baiña sarriegi ikusten doguna, ikastolan ikastaro guztiak egin dabezan gazteak be, euskera utsean konbertaziño lauena eroateko gauza ez diranak batzuk, eta euskera berba bat esaten molestau gura ez dabiak be bai.

Ia urengoan, neuk ikusi ta entzun dodazalako sinisten dodazan kontu batzuk idazten dautsuedazan.

1993 URTE BARRIA

ALDI BETEAK

Aspaldiko urteai begiratu ezker, gauza bat agiri da argi: Aspaldiko urteak bete-beteak doguzala.

Oraintsura arte, urteak alkarren antzekoak ziran, urte batetik bestera gitxi aldatzen ziran gauzak, baiña aspaldion arrituta bizi gara, urterik urtera aldakuntza aundiagoak datorkuz. Aspaldiko urteak urte beteak dirala esan bear da.

Joan jakun urtean jazokizun barriak ziran Europa'ko sortaldean izandako aldakuntzak, Europa-barruan sortzen asi dan alkartasuna edo izukeriak egin dauan atzerakuntza.

Orain, urte barriari begira, arrituta, itaun au egiten dogu. Zer jazoko ete da aurten? Norantza joango ete dira Europaren Sortaldeko erri orreik? Nondik jarraituko eta dau Ew•opa'k artu dauan alkartasunera bideak? Amaituko ete da izukeri kaltegarria? Edo, sarninatasunez esan bear doguna, kendumo ete da lurralde batzutan dagoan gosea?

EGUNEROKOAK

Baiña barri arrigarri orreikaz batera, geure ondoan daukaguz eguneroko albiste txikiak eta garrantzitsuak: Gure lantegiak aurrera egingo ete dabe? Edo eguneroko ogia damoskun lanak ez ete dausku utsik egingo?

Euskalerrriaren jakintza-maillari begirata, gure erri-izakerea aberastuten eta edertuten egiten dogun lan orrek atzerantza ala aurrerantza egingo ete dau? Gure euskerak berak, batez be Bizkai'koak larritzen gaitu, bizitasuna artuko ete dau ala moteldu egingo eta da? Maitena'k barri gogoanganiak diñoskuz "Zer" onetan.

ADINA BERA

Urrago begiratu dagigun. Urteen joanean argi ikusten dogu ukatu eziña dan jazokizuna: Gure umeak gazte biurtzen jakuz, gazteak eldutasuenra datoz eta elduak zartzarora. Eskuetatik iges egiten dauskun denporearen menpean gagoz eta ori onartzea baiño beste biderik ez daukagu. Mundu au bide zabal aundi baten antzekoa agertzen jaku eta bide zabal onetan guztiok goaz aurrera, bear-izanetan alkarrari lagunduz.

Eleixea osoan barrutik barrenean altare-aurrea (Bakio).

ZELAKO MUNDURANTZA

Ori orrelan dala ikusirik, ezin itzi itaun au egin barik: Zelako mundurantz goaz? Obeagorantza ala txarragora?

Trebebideai begiratu ezker obarantz, trebetasunak aurrerapen aundiak dakarskuz, naizta ondoren lez kalteak be etorri.

Izadiari begiratu ezker, kutsadurak ardura aundia emoten dautso gaurko gizonari: Ozono dalakoaren zulo ori, ibaiak zikinduta, zugaztiak zapuztuta, edateko ura bera be kutsatuta...

Oiturak kontuan artu ezker, eguneroko barriak entzutea da naikoa gizonen zabarkcriak norantza garoazan ikusteko: Ume ta gazteak baituta, ilketak nonnai, kuntza-arazoak beti ikusgai...

BETI LENGORA BIURTZEN

Antziñako jakin-zaleak esaten ekien, eta oraintsuagokoak be ez dabe ukatzen, mundua beti dagoala lengora biurtzen (eterno retorno). Orrek ez dau esan nai, oso-osoan lengora biw-tzeko ametsetan bizi garala. Amets zoroa litzake ori. Baiña bai arlo batzutan, zentzunezkoak eta betikoak diran ainbat gauzatan beintzat.

Irakurle: Urte barri onetan dana izan daitela obarako, zeutzat, zeure ingurukoentzat, gure Euskalerrriarentzat eta mundu guztiarentzat.

ZORIONA!



IRU ALMEN

Bene benetan, gizonaren izatea, ezagutzen doguzan beste zer guztien artean, oroz goitik, dago. Gauza ederrak asko dagoz abere, zelai, mendi, arkaitz ta itxaso-arte. Gizona, sarri, egon da zorabiatuta abereen liraintasunari ta izadiaren ederrari begira. Izan bere, adimen ain argiak egin zituan gauzak, danak ederrak izan ziran euren sorreran.

Izadiko gauz guztiak personen serbitzurako egin zituan ta andre ta gizona areik sorturiko lur guztiaren jaun ta jabe. Ta itxasoa ain urdin ta zabala dalarik, ta lurra ain orlegi ta zorakorra izanik, edertasun guzti orreik onartu ta frutua emon erazo ta menperatu al izateko, giza-semeak berarizko doaiz edertu zituan.

Lurrean izan ziran lenengo seme-alabak iru almen bereziz apainduta daukaguz, Egille berberaren antzera. Gogorarena, adimena ta naimena gure gogoaren iru zutoin illezkor lez dira. Orrean inguruan dabil burua ta ta buruaren ingurulana, aurrerapidea ta bizitza guztia. "Onak dituk gauzak ta oraindiño gizonak egin bear dituanak". Esanda dago baita bere, "eguzkiaren azpian ez dagola gauza barririk".

Onak gogoan ditugularik, asi gaitzen bizitza-zear zerbait orraztuten. Lena, oraiña ta geroa biziaren iru zati ta misterio bat legez ditugu; orren iruron artean josita dago biziaren katea. Eurotariko zati bat kengu ezker, zulo aundi bat sortzen da biziaren joan-etorrian. Emen lurrean emon jakun bizi-gozotasun au, egiazkoa izango ba-da, ezin giñaikio atal bat bere kendu, geure gurasonen bizia ezereztzat botatea litzake, edota geure aur denporea lurperatzea. Ta ori ez da, iñundik iñora be, gauza bidezkoa.

Lengo aroa, biziaren edestia, gizadiak egin dauan bidea da. Ta giza seme-alabak dagiena, biziaren sorreran artu eben agindua betetea da: "Azi ta ugaritu zaitez ta lurra menperatu egizue..." Guk orain, oroimenaren bidez gogoratzen ditugu giza-jakituriaren aurrerapideak. Benetan dira ederrak ta arrigarriak eta era berean, bizitzarako onuragarriak.

Gure arbasoei, etxerik egiteko argitasunik edota erreztasunik ez euen aldirako, lurraren Egilleak izadiaren babesean jarri eutsezan leza-zulo arrigarriak. An ikusten ditugu mendi-barruak, arrigarriri apainduta, aldiaren indarrez arkaitz urak egindako lan bikaiñak. Begiak arrituta, begira, ez dira aspertzen. Gizonak egin ezindako bitxiak an dagoz ur tantanez eginda.

Gaur, gogoz ta pozik, oroitzen ditugu geure asaben antxiñateko toki, bizikera ta lanak. Aurrean, ikusten zituen gauzak ziran arkaitzak, sasia ta basa-piztiak, ta euren artean giza-seme-alabak mundu barri bat sorten. Andik gatoz bai. Arek ta ondorengoek, geldi geldika, egin eben lanagaz gaur-

ko bizira eldu gara bizi-katei baten bidez alkarturik.

Gogorik onenaz oroitzen dogu lurralde onetan tinkatu, indartu ta zabaldu zan euzko gizadia. Burua, biotza ta zentzuna beti alkarrekin erabili ditue Auñamenditik kantauri itxasora bitartean bizi izan ziran eusko seme-alabak. Giza-seme-alabak mundu zabalean, guztiok gara alkarren antzekoak Aita baten seme-alaba legez, baiña bere alderdi ezbaridiñak ba-ditu gizadiak. Baltzak, zuriak, erdi-gorri baltzak, berez berez, sortu dira iturri bateko sormenetik.

Beraz, ez da arrigarria, euskaldunak be euren berezitasunak izatea. Orretariko bat da euskaldunaren buru-azurra abendaizti jakitunak diñonez; euskaldun buru azurrak bere jitte dauka ta ez edozelakoa... gizonari bere irudi ederra emoten dautsona baiño; orren barrutik etorri bear dau ba jakituri zabalak eta zuzenak.

Egiz, atsegingarria da gauz onak oroitzea, ortarako artu genduan ba oroimen-almen zoragarria, gure almenetan bat iaioa. Almen oneri esker gogoratzen ditugu gure lurraren edertasunak, mendi, arkaitz, solo, ibar, ibai ta baratzak. Irri gozoa dario ta poztu egiten gara.

Baiña asabengandik artu dogun oroigarriak amultsuena geure alkar ulertzeko sortu eben izkuntza dala diñoe jakintsuek. Benetan, urrezko bitxi bat dirudi euskerak. Orain miñillaak urteak baso, muru ta mendi artean jaio zan. Bartzuetan trumoi otsa, euriak lagunduta, beste batzuetan urrezko eguzki dardari artean murgilduta azi zan... Edozelan bere, ez zan jaio toki barregarrian, ain eder ta goi argitsu agertzeko gizadiaren aurrean.

Gizonaren beste almen eder bat adimena da. Almen onak ikusi ta ikasten ditu izadiaren ta gizadiaren barneko zokorik ixillenak. Bizia aterateko egiña da izan bere, gure bizira begiratuz, ikusi daigun adimenaren balioa ta edertasuna. Gizonak sortzetik artu eban agindua, mundu zabalean betetu bear dau ta euskaldunak, alan bearrez, lurralde onetan artu eban bere bizi agindua.

Eta benetan, ez eutson ukorik egin euskaldunak, jaiotzaz arturiko bere lur-lantzeari. Zure izerdiz landuta, jango dozu ogia, ondo, entzun, artu ta betetuten alegindu zan euzko semea. Arrizko atxur, aizkora ta aizto sortu zituan lenengo lan-tresna, ta iñoz, ez zan geratuko lan-bidean tresna barriak sortzen lurrez eta itxasoz gaurko ordu aundira eldu arte. Guzti ori, adimen-sormenetik etorkion argi indarraren zitu edo frutua zan.

Mendiak dotoretu ta lar ta ota sariak garbitzen arrizko atxur ta aizkorekin asi zan. Berezko lan-garra euen Aitorren seme-alabak; lan egin ta biziari erantzuteko jaiok

ziran. Lurra landuagaz batera, euzko gizadia ta bere lurraldea sortzen doaz. Emendik argitu zan giza-alkartasuna, oitura ta odol bardiñekin euzkoen erria sortuaz... Gure arbasoak euren jokabidaren bidez, gatza ta jakituria ezarri eutsoezan bizitzeari. Astiro doaz, baiña gelditu barik, euren gisara sortuko dabe euzko aberria.

Giza-talde onek, berezko eginbearrez, alkar aitu al izateko izkera bear eban, Antxiñateko euskaldun areik, emen, agertuko eben euren adimenaren albilidadea. Izkuntza bat ederra izan daiteke, aberatsa izan leiteke, baiña ainbeste jakituri aditz-barruan daroanik ez da, errez, iñun aurkitzerik. Gure arbasoen burua ain zan argia...! Argitasun orretatik ba, bitxi eder batek urten bear eban... euskera, euskaldunen izkuntza ta nortasun ezaugarriak.

Mendi artean agertu zan lora ederra, pentsabiderik argitsu ta sakonenak agertzeko duin izan zan. Arbasoen erria, aurre-ra, joian zabaltzen ta indartzen ta alkartasunezko bizitzak, berez eskatzen zituan bata-besteagazko artu-emonak araudi edo lege-bidez zuzendutea. Legedun erria izango zan ba euzko ibar, muño ta mendietan bizi ziran arbasoen kabia... Lateiria, legedun erria esan nai dausku izen bitxi orrek... Ta buru argidun jendetza batez ezin eikean beste era batera izan.

Euskaldun benetako guraria, beti izan da erriaren ona billatzea, aberriaren zori ona ta laterriaren aurrcrapidea, geo-roago ta beketsuago egitea... Euzkoari, berez, jatorko zentzunaren irakatsi ongillea... betiko argiaren izpiak argi egin dautso ta ezin dau, iñon, ondamenen ikusi. Ori dala-ta, erriarentzat nai dau, berari zor jakon bizi-bidea, argitasuna ta bakea ta erri-bizitza.

Gure arbasoak, euren lege-erria edo laterria ruzentzeko, argi bereziak eukezan. Jendearen zoriona besterik ez eben billatzen; ta ondoren, ortik etorren, alderdi guztietara begiratuz, erriaren bear izanak ikustea, ta gero, bere onerako erritar lege egokiak jarrea zan euren elburua. Jauntxokcrik iñon ez dau onartu gure erriak; izan bere, begi bik baiñe ogetamar begik geiago ikusten dabe ta baten nauskeriak erria zapaltzea ez da egokia. Borondate asko alkartzea ikuspegi aundi ta on baten bidez, jakituri aundienetakoa da, giza-bizitza bakez eroan al izateko lurrean.


γ****

Gizonak ba-dau beste almen aundi bat, bere on guztien artean ederrena naimena deritxona. Bear izanera eltzen danean, batez bere, ta munduko mundukeriak amaitukeran, au da personeak onartu ta gogo biziz estimetan dabena, borondate ona. Estura, bakardade ta bear izanean aurkitzen danean, errukarriak ez dau besterik nai laguntzea baiño. On guztien burura auxe da izan bere, maitasuna laguntasunagaz. Zaurituta dagoanak, zapi zuriagaz esku on bat bear dau bere zauriak garhitu ta osatzeko. Au da, egin, egitekorik sakon ta egizkoena.

Itz utsak aizeak daroaz, egiteak dira maitasun-agiri. Gaztea nintzalarik, maitasuna ikusi neban gure lur gaiñean; gaur be biotzak poz, dardar, egiten daust egun aretako gora-berak oroitukeran, samiña alderdi batetik, ta samin-artean bertan, on egiten ikusten nituan gizonak. Jaungoikoarengandik arturiko naimen ona, on egiten, erabilli bear... Ezin bestclan bizi, baruak onerako bultz eragiten eutsen.

Onek dira gizadiaren ongilleak, Kristo bcrberaren antzera. Gizon ta emakune aren jokabideak, gaur be, argi egiten dautso egi-zalea dan erri ta gizadiari.

PAULIN



Elei:aren at:ekaldea barrenean korua (Bakio).

ERRATZA ETXE-BARRUAN

LENGO OITURA ONAK

Etxeetatik erratza geienbat baztertu dabela dirudi. Autsak aizatzeke ez ei dira egokieanak. Orretarako argi-indarrez erabilten diran tresnak, erratz apala baztertuaz, etxeoandrieri-eta barruan erosoago lan egiteko erreztasun ariña zabaldu dautse.

Alan da guztiz, erratzak badauko bere zeregiña, batez be lan zakarra ta gogor-samarra egin bear danean. Bere zeregiñetan ekiteko urte askotarako daukaguz. Bai ba, zikinkeriko asko tramankulu latzak bakarrik jasoko dabe.

Ez dakit orrek antigualeko atsak aztintzen nabillela esan nai dabenik. Antxiñako joera guztiak alboratzeko gogo andirik ez dodala erakutsi nai, eta au egizat joten dot.

Gu euskaldunon artean, kondaira lekuko, zaarrak begirunez artzen ziran, eta ez gitxiago euren aolkuak. Oraintxe be sarri entzuten dakigu, "Aita gureak esaten ekian lez...", "Nire amak egiten eban lez..." -eta. Atzoganako begirada orreik errespetuz emoten doguz. Gure gurasoak, bearbada, ez ziran eskolatuak (askotan irakurten be ez ekien), erderaz tutik be aitzen ez ebenak izan leikezan, baiña alako jakituri oiñarrikoa erakusten ebela konturatzen giñan eta gara. Euren gizakera ez zan liburuetatik jasotakoa, baiña euskaldun kutsua, elizaren eta elizgizonen bitartez eurengan sortutako gizatasuna, kristiñau giroari zor jakon. Geuk be gure burua arro ikusten genduan, eta kanpotarrak gure izakera ta jokaera ori euskaldunen ezaugarritzat artzen eben.

Gure arbasoen tankera! Oraindik be, naita oiturak geiegi aldatu (eta ez beti onerako, nire ustez), or gertzen jaku eurak ereindako azia.

Gai onek garrantzi andia dau: bein baiño geiagotan zuzendu dautsoz ZER'ek bere begi zoliak, eta orregaitik ez noa, gaurkoz beintzat, orreri astiñaldi bat emotera.

EUSKERA ZAKARTUA

Orregaz lotuta ikusten dodan auzia, baiña, eta zerikusio estua daukan kezka ikututea gura neuke.

Gure izkuntz au naiko mordoillokerietan naastuta ikusten dogu. Naikoak ez ziralakoan, or nun sortu jakozan buruauste barri batzuk, eladeratik edo beste izkuntzetatik euskeratutako berbak, esaterako **ph** edo **th**, edo **v**, **f**ren edo **t**'ren edo **b**'ren ordeztatzen erabili bear diranentz. Len euren lagunak h-a sartzeko eskatzen eben eskubidea, orain (naita eurek be Euskaltzaindi'koak

izan) eskubide ori zabaldu gura dabe, euren gogokoak diran izkuntza **kulto**en idazkera euskeran be sartzeko. Kondairaren gurrpilak biraka dabiz azpertzat barrik, eta lengo **v** bizkaieraz baztertu ta guztiz aldatu, eta orren ordeztatzen **b** jartzen ekin zan aalegiña -euskal berbetan ez ezik, gaztelarakoetan be bai- goragarria ta gogoangarria da.

XIX mendeko asieran Juan Antonio Mogel eta Pablo P. Astarloa, **v'** ren aurka ataraten dira. Juan Antonio Mogel'ek **Peru Abarka'n v** alperikotzat jotzen dau. Juan Jose Mogel'ek euskal aberba geienetan **b** erabilten dau, Latin edo gaztelarakoetan, geienetan, gaztelaren arauak jarraitzen dauz.

Prai Bartolome dogu **v** zale: **v** erruz erabilten dau, kasu batzutan geienbat, batzutan **b**'gaz zalantzan, bai euskal berbetan bai euskeratuetakoetan (Xabier Altziabar, "Bizkaierazko idazle klasikoak").

Orra ba, jira-biraka lengo egunetara biurtu nai gaituela emoten dau. Askatasuna eskatzen dabe gure idazle orreik, baiña lenengotik askatasuna eskatzen ebenari ez dot uste askatasun ori zabaltzeko prest dagozanik. Baiña, alan da guztiz be, ez dot txarto artzen bizkaieraz batez be idazten dabenai eurek eskatzen daben eskubidea zabaltzen ausartuko ba'lira.

Ni ez naz iñor (gerkera ta latera jakin-eta be), orrelako ur sakonetara joteko, baiña idazkera barria (h-eta guztiz) ondo tinkatuta eukela pentsaten bide zan, baiña iraultza baten beste ertzeko iraultzaille batzuk iraultze barriak asmatzen dakie.

Beste arazo batek kezkatzen nau. Euskerari sortu jako iraka-galgarria, berez gari garbi ta janaririk elikagarriena izan leikeana gure euskerarentzako eta batez be gure bizkaierantzako. "Kristo" gure Jaunaren izen agurgarria begirunez erabili bearrean, edozer tenetelkeriri (birao ez esatearren) eransten jakon esakera itxusiak irakurri edo entzun egiten doguz.

Gure zaarrak be Kristo esakera zentzunezkoetan erabilten eben, esaterako: "Kristorenak emon eutsuezan", "Kristorenak esan euskuezan", "Kristorenak entzun daustaz", eta olakoak' Tira, gure antxiñako kristiñau giroetan ondo aitua izaten ziralako kontuan artuaz, esanak gogo zabalez ulertu leikez. Gure Jaunari bere etsaiak esaten eutsezanak eta olakoak entzun bearrak, gure bizitzari jazoten diranakaz zerikusio estua euki leikenez, Maixuarenak geuretu egiteak bizitasun apartekoa emon leikio esanari.

Baiña, zer esan kankaillukeri batzuei buruz, esaterako: "Kristo'ren neska bategaz ei dabil", "Kristo'ren afaria egin genduen bart", eta, olakoak eta antzera-

koak, ez kalean bakarrik, komunikabideetan be entzuzter beartuak gagoz.

Euskera orreri esiak jartzea eziñezkoa izango dantzenz susmo txarra datorkit burura. Orretarako, bide bakarra gure erri errukarri au barriro ber-kristiñautzea izango litzakela argi daukat.

Berez euskera txukuntze ori ez da, ain zuzen be, erlejoaren eginbearra, baiña laguntza andia ekarri leikio. Eta ao garbia eukitea guztioi komeni ba jaku, uztelusaiña ingurutik erratz bategaz ekin daiogun zereQin orreri. Beste zeregiñetan garbizale sutsuak biurtu gara, eta izkuntzan, eta bizkaieran batez be, zakartutako berba zantarrak erailtea onartuko al dogu ba? Ez dirudi bidezkoa.

Kristo 'ren izena eta olan erabilli bear ez diran edozelako berbok, euskerea arlote biurtu dogula biztan da. Aberastasunera goratu bearra daukagu, eta esakera gordiñak baiño ondo umotuak geure aotan eta idazkeretan erabiltean asmo ori egi biurtutea guri dagokigu.

Gure eginbearra auxa dala ikusten badogu, ZER'eri bere orrietan lagundu daikeogu eskua ta luma eskeiñiaz.

ZUBIKARIA'TAR JOSEBA



Illturu mrrreu (Bukio).

EUSKERAZALEAK

Bazkide maitea:

Idazki onen bidez dei egiten dautsugu 1993'ko urtarrillaren 28'an (eguenean) gure erakundearen etxean arratsaldeko 8'retan izango dan oiko batzar nagusira, urrengo egitamuz:

- 1.- Leengo batzar nagusiko agiriaren irakurpen eta onespena.
- 2.- Diru-egoeraren azalpena.
- 3.- Urteko ekintzen azalpena.
- 4.- Eskaera ta itaunak.

LENDAKARIAK

EUSKERAZALEAK

Querido asociado:

Mediante la presente te convocamos a la proxima Asamblea General Ordinaria, que se celebrara el dia 28 de enero de 1993 (jueves) a las 8 de la tarde en los locales de nuestra Asociacion y con el siguiente orden del dia:

- 1.- Lectura y aprobacion en su caso del acta de la Asamblea anterior.
- 2.- Estado de cuentas.
- 3.- Memorias de actividades.
- 4.- Ruegos y preguntas.

EL PRESIDENTE

GORATZARREA

Benetan ederra izan zan, Ondarroa'ko Erriak egin eutsona bere Seme Bikain Zubikarai'tar Augustin'eri.

Aste osoa izan zan bere omenez eta aste orretan Zubikarai'en antzerki batzuk egin ziran erriaren atsegiñezkoak eurak eta, beti, antzoki-aretoa jentez gañezka agertzen zala, esan euskuenez.

Geu, azkeneko egunean bakarrik izan giñan (Azilla'ren 8'an), baña ikusi genduan ainbat biztanle egoala bere alde. Erri osoa zala esan lei.

Lenengo Meza Deuna. Eleizkizun orretan eleizea ia gutziz beteta agertzen zan. Ango abesbatzak ondo bai ondo abetzuz danoren poztasunerako ta onez gain erri osoak lagunduta. Au dana ez da arritzekoa, Ondarroa'ko abesbatza txapeldunen artean beti aurkitu oi da-ta. Orrelako abotsak entzutearren bakarrik, joan leiteke Ondarroa'ko eleizkizunetara.

Meza Deunean iru abade izan ziran eta sermoia bota ebana gutziz ondo ta zeatz egon zan.

Eleizkizuna amaitu ondoren, erritik-zear eta ibai ertzetik, danok joan giñan "kofradia" barriaren ostean dagoan enparantza txukun bateraiño ta antxe agertu eben Zubikarai'en irudia (burua, besterik ez) arri gogor baten gañean; eta onen ostean, etxe eder baten arku-pean, Zubikaria'tar Augustin'en izena. Orrelan badauke ondarrutarrok euren erriko seme jator, idazle sakona ta abertzale zintzoa dan Zubikarai'eri enparantza bat eskeiñita. Ondo irabazita geure Augustin'ek goratzarre ori.

Enparantza orretan, jaia osotutze-ko, espatadantzari, gorulari ta itxastar neska-mutil gasteen artean euren dantz ederrak egin ebezan eta ondo egin bc. Bertsolariak be antxe egon ziran euren ekiñaldia betetzeko, Augustin'eri buruz zeozer esan eta onen izena goratzen, eta oneik be gutziz ondo bete eben euren eginbearra.

Gero kiroldegira joan giñan eta antxe, geure betiko oiturea dan lez,

lagun arteko bazkaria euki genduan, jai eder orreri amaiera ezin-obeia emonaz.


Bazkari orretan ainbat lagun batu giñan eta danon poztasunez igaro genduan. Bazkal-ostean bi gaztek euskal soiñuak eskeiñi euskuezan eta ondoren bertsolariak be beste ekiñaldi eder bat bete eben.

Eta askenez, antzerki batzuen zati batzuk aurkeztu euskuezan. Guztiz ondo antzeztuta oneik bere. Ondoren AGUR JAUNAK abestuaz aldendu giñan.

Oneixekaz amaituta itxi genduan gun eder ori ta bakoitza, pozaren-pozez, geure etxera biurtu giñan Jainkoari eskerak emonaz igaro genduan egunagaitik.

Lerrotxu oneik amaitzerakoan gauzatxu bat bakarrik esan bear dogu, au da: Biotz-biotzcz Zorionak, Augustin, eta jainkoak bizitza luze bat emon dagitzula, oindiño ba daukazu zer-egiñik-eta.

EGILEOR'TAR JON



Ataria eta .carre ra nagusia-urr hedeirtkctu art.-iuk (Bakio).

IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauko Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko erea. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEAren izena ipiñi ta 1.500 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA. Colon de Larreategi, 14, 2.º, eskoia. 48001 BILBAO.

GABONETAKO SORGINKERIA

Oi Betleen,
etorri da zure garaia.
Oi Betleen!
Ongi bait du dizdiratzen
zugandik eldu den argiak
bete ditu bazter guztiak.
Oi Betleen,
Oi Betleen!

* * *

"Genesis" deritzan liburuak argi erakusten digu gizonaren okerkeriak nundik nora jotzen duen. Aske gera bai; baña, askatasun ori ondo erabiltzen ez da gauza erreza izaten.

Askatasunik ez ba'lego, ez legoke okerrik ere. Alaz ere Jaunak naiago izan zuen gizona aske egitea eta ez animalien antzera askatasunik gabea. Ar-emeak egin zitun eta bien arteko jokabideak okerra sortu. Orra gizadia pekatari.

Zuk duzu kulpa batek besteari. Biak errudun. Baita irugarrena ere: ostopo jarri zien Tentalaria.

Izarditan jango duzu zeure ogia eta zuk, emakume, aurmiñetan izanen dituzu zeure umeak. Zuri, berriz, Okerra zeran orreri, Emakumearen ondorenak zapalduko dizu burua.

* * *

Itxaropena argitu zan lurrean. Askatzaille baten itxaropena. Urte luzeak pasa ziran bitartean; baiña, aikenean ere, orra eguna eldu:

"Ogeita laugarrena negu-abenduan
deseo genduen iritxe genduan;
gaueko amabiak jo duten orduan
gure Salbatzaillea jaio da munduan..."

Gezurra dirudi, baiña egia izan: 1986 urte dira, gutxi gora-beera, andratxo gazte xume ezezagun batek, aurtxo bat izan zuela pobrezian, ijito-kume baten antzera.

Ez zan jaio Erromako errege-jauregian, ez eta iñungo jakintsuarenean ere. Aita-ordeko, erriko arotza eta ama, neskato apal bat. Ez aberats, ez jaintsu, ez indartsu... Ezer ez.

* * *

Gabonak ba-dute beuren sorginkeria. Eguzkiaren sortzea ospatzen omen zuten gure arbaso jentillek garai onetan eta orrexagaitik omen da gabonak aundikiro ospatzea... Emen ez du iñork aspaldiko milla urte auetan eguzkiaren gogoramenik egin; baiña, bai Aur txiro aren gomuta.

Nola liteke, ainbeste urte pasa eta gero, Umetxo aren gogoratzeak orrelako arrakasta izatea munduzabalean...? Sorginkeria esan dugu? Misterioa esan dezagun. Goi-goikoaren Jakinduria, Aitaren Seme bakarra, aragiz jantzi da eta onek ez du Erromako jauregirik bear, bere gogorarena eragiteko munduan.

"Jainkoaren Itza aragiz jantzi da eta gure artean etxola jaso du. Guk ikusi degu aren ospea..." Joanez arrazoi: orretan datza Gabonetako sorginkeria.

ARRINDA'TAR ANES

*Urtero lez eurten be
Ospatzen da Gabon.
Bakezaleok alkar
Zorionak emon.
Herodes be or dago
Eta lo ez egon.
zerura begiratu
Izarra non dagon.*

*Jesus Salbatzallea
Munduraturtean
Ostatu eske dabil,
Atean-atean.
Askenezjaio bear
Aterpe batean,
Andirik andiena
Txikien artean.*

B. Pujana.

OSTERA BE "BENIDORM"

Igaro dan zapatuan itxasorantza ibillaldi bat egin bear gendula-ta, Txatxarramandi'ko zubi-gain luzean gengoan nire adiskidea eta ni, an egalean karramarrotan ziarduan gizascme gazte zur bati adi be adi begira; iru edo lau butroi eukazan arrain-mota gozuok sare-artean arrapatzeko. Nora noa onekin`? Ez arritu. Giza semeok be sarri edu orretan atartean sartu oi gaitue. Niri beintzat olako zerbait gertatu jatan igazko urtarrillaren lenengoan Benidormen aurkitu nintzean, ila eta erdian. Egiaz, damutu barik autortu bear.

Uri gizatsu au, inende onen asierara arte, kañaberaz eta olibo txaparrez jositako itxas-bater legorra besterik az bazan be, izena baiño ez ebana, gaur uri garrantzi aundikoa dozu, atzerritarrez batez be ornidua. Mediterraneo itxaso, naiko baketsu, dau sortaldetik sartaldera, ertzetan mendiak ditula, inguruka etxegiñerako lautadarik ez daukala-ta, etxe eta torre luze guztiak lañoetaraiño doaz, gora-naiez. Zoragarria benetan urrin samar dagozan mendi-gaiñetarik begiratuta.

Gaur etxegiantza geldu, dirudienez, ba dago be, itxas-urez kuin-kuin olibo-mukur zurrez eta kañaberadi gaur be agiri jakuzan zelai naiko lodiz apain ikusten doguzanak. Toki estua benetan lur-gaiñez uri nasaizabala jaristeko; beraz, gorantza, odeietara jo dabe etxe-jasotzailleak. Gure artekoak be, ez gitxi, ba-dira etxegille orrean artean. Besteen artean, or daroe "Etxe Zuri" izena bost olakok, an eta emen euskaldun ospea zabalduz. Bada euskaldunik uri gazte onetan, bai etxez, bai dendaz, bai tokiz...

Uri arrotza dirudi. Kalez ba zoaz, erbeste izkuntza inglesa, aleniana; italiarrak, belgarrak, sueziarrak, flamenkoak, portugesak, guztiak bertoko aizez, mediterraneo kresalez birikiak ornidu gura; zar eta gazte, ango edo emengoa dala, osasunak darabilen jentea dozu dan-dana.

Sei-zortzi izkuntza egiten dira bertan, bakotzak berea eta geienetan enparauena be, nai-ta ez ain ondo ulertzeko bcs-tean jakin. Barririo diñot. kalern, azoketan, dendetan, kafe eta jatetxeetan ainbat izkuntzetan mintzatu arren, iñoz ez da ^aatxa, guziak alkar ulertzea, berba bat ulertu ezik, kiñuz aitzen emotea. Arazo ortan ikasbide ederra damoskue kanpotarrak, baita beste zer askotan be. Ni euskal txapelaz edo eleiztar antzera jazten nintzan eta irribarrez agur egin oi eustan, nik -mertxika` erantzunik.

Komerzio ta denda-klase guztitik daukazu, alemanak eta inglesak geientsuak; salgei asko, bitxiak ugari, modu askotakoak; jateko ta edateko millaka klase ta motako. Jatetxeak aurrez, merke ta jan-naizu esaka. Miesa ta tela, oski eta zapata egoki, kolore ta era askokoak: dana jenteari "erosi naizu" esanez. Inguruak dotore be bai, erosleari atsegin emon nairik.

Or-emen azoka-denda ugari, aundiak eta txikiak. Nire oteletik, au da, "Ager Zuri" nire oteletik ezker-gora joaz, "Rosaura", "Galypso" eta olako otelak daukaguz, eta kale orren amairantza azoka naiko aundi bat, gauzaz ugaria; atsegin izana niri emen egon nazan egunetan, naikotan izana naz bertan, fruta klaseak nik gogoko batez be: kakiak, kuibiak, pomelork, granadak... batez be, emen artzen doguzanak, eta

artu leikezanak; Larra'n ba-daukaguz kakiak eta kuibiak, baiña ez pomelork eta granadarik. Azken bi oneik be aruten ipinteko asomtán nago. Gero, astean bi aldiz, Domeka ta eguastenetan, gure oteletik laster, zelai luzezabalean be-aldeko eta afrikar saleroslez leporaiño berterik, azoka ikaragarria egiten da. Ni be ara eroan oi nabe, kontuz ibilteko esanaz, "patatero" asko dabilela-ta. Patateroak joko guzurti baten azkar diran batzuk dozuz.

Gaur etxez beteriko lur-saillak ez ditu metro asko zabal, baiña luze iru bat kilonictro ei daukaz bizitza estu goi-zalez beteak. Luzeera ontan ezkerretik ondartzat edatua, are zeez gorritzakz batea, itxas barruan arrimokor pillo baltza daukala, erriaren leiendak diñoanez, ez dakit nok eta zein lekutatik ara jaurtia, ontzi bat daukazu ara joan-etorria egiteko.

Plaia ertzetik zear egurats-toki luzea, jente guztia emetik dabil egurasten, izkuntza eta aberri guztietakoak, baita euskaldunak be errez aukitzen dozuz bertan. Ondartzan ez bakarrik are biguna, baita ainbeste jarleku, etzun ogetxo ta abar daukazuz, eta illuntzean ainbat tramankulu baiñulariak egunez itxi dabezan loi, ondakin eta zakarrak kendu eta urrengo egunerako inguruak txukun izteko; naiz plaian eta naiz errian bazterrak garbi daukiezan giñerra darabilen askotxo dira Benidorm'en. Ezta arritzekoa: berton bizi diranak turistak dira-ta, onek naitaez garbitasuna eskatzen.

Ona beste oitura bat: egunero aurretik berbatuta dagozan oteletatara autobusak doaz albo-errietako tokiak eta arte-ederrak ikusten joan naiez dagozanentzat; dubarik, gin oi da arratsalde osoa, gaur txokolate-fabrika bat, biar zapata-leku bat eta abar. Bakotzak beti erosten dau zerbait, eta salketa polita egin dabe etxe askok, berreun millatik gorakoa sarri. Liburu saltzeak, narruzko-jake saltzeak janari eta edari saltzeak olantxe... Guk ez daukagu olakorik, baiña ez legoke txarto.

Gure bizimodua otelean? Gora bakoa dala? Nik ez dot uste. Urrin dagoanak jakin nai dau maite dauana zelan bizi dan, goizetik gabera. Emen asko dira gurasoak, seme-alabak, emaztea eta gaiñerakoak, biotzez maiteak, etxean itxirik, urrin bizi diranak, osasun-billa askotan, Alikante onetaraiño etorriak. Gabaz ogera an jagi bakotzak gura dauanean egiten dau; gosaria bederatzietatik aurrera; Agurtza eta mezea, egunero, euskeraz; bakotzak bere gauzak eta ondartzat, bazkaria, lo-kuluska, irakurri, ikasi, ibilli, zortziretan aparria, egun bitik baten musika ta dantza amabiak arte.

Jatekoa ona da, "Sely Servis" moduan. Jantokian, mai luze bitan dagoz lenengo tresnak, koillara eta abar; gero jateko motak, bakotzak jan-alan artuko dauzanak, ogi, egoki, aragi naiz arrain, fruta-klase asko, gozoki eta gaiñerako kafea naiz likora bazkal-ostean edo-ta eguneko beste ordu baten nai dauanak artzeko areto berezi bat ago. Bazkari eta aparti-ostean kalera orduko jentekajokoan ekiten dau. Edo-ta alkar izketa gozoan.

Ezta angoa bizimodu baldresa. Asmo askoz goriturik doa ara jentea, bat soin-atxakiren batetik osatuko dalakoan, beste

IRU ERREGEAK

"Iru errege datoz kale nagusitik
tripa ardoz beterik ezin egon zutik;
Meltxorrek eltzen dio Gasparri besotik
ez muturrez aurrera erortzeagaitik..."

Euskalduna beti adar-jotzaille; ez die barkatzen ezta
Sorkaldeko iru Errege zalduneri, ere.

Mago batzuek eldu ziren Jerusalem'era errege-prin-
tzearen billa. Nora joko eta Herodesengana jo zuten.
Onek bertako apaiz eta jaintsueiri galdetu:

—Nun jaiozekoa da Mesias erregea?

—Belenen, dudarik gabe; alaxe bait dago idatzita igar-
leen liburuetan.

Herodes maltzurak dei egin die eta noiztik dakiten
izar arren berri galdetzen die:

—Zoazte eta an-eta aundiz bilatu aur ori, neu ere bera
gurtzeko irrikitzen nago-eta.

Magoak izarretara begira bizi ziren, izarretan bait
dugu geure etorkizuna. Bakoitzak badugu geure izar be-
reizia... Orduko siniskeriak gaur ere: oroskopoiari begira
bizi zaitzu jendea, izarrak nundik alkartuko diren, bizi-
tzan nola jokatu jakiteko.

Gauza arrigarria ikusi zuten: lendik ez zegoen izar bat
agertu da ortzian. Israelgo kulturaren berri bazuten eta
bertan aitutzen da Jakob en izar berria, Mesiasen ezauga-
ria. Bi jakingarri auetatik ondorena atera zuten, Israelen
Mesia erregea sortu zala...

Ondoren erabaki au: gurtzera joango gera.

Zaldia eta kameluak prestatu, erregaliak aukeratu,
Mapa bat erosi eta badoaz eremuan zear.

—Aizu, idazle, izarra aaztu zatzu.

—Ez, adiskide, etxetik Israelera joateko ez zuten izar
bearrik; naikoa zuten Michelin'en mapa bat.

—Eta, zergaitik margolariak beti izar bat ipintzen diete
aurrean bidean doazela?

—Sortaldean ikusitako izarra, gero Jerusalem'dik Bele-
nera irtetzean agertu zitzaizen berriro. Aien poza ura ikus-
tean...!

—Baita, baita.

—Maparen bidez Jerusalem'era. An dakienari galdetu.
Elburua badakite. Lengo abentura orain egi biurtu zaie.
Zoraturik daude pozaren pozez.

Izarrak Aurrarengana lagundu die. Etxetxo batean
seme-amak gurtu eta doaiak eskeiñi. Errege apala bene-
tan: emen ez da arrokeririk, ez aberastasunik, ez indarke-
ririk... Auspez gurtzen dute...

Zenbat zirenik ez digu Mateo doneak esaten: "Mago
batzuek..." Ez errege zirenik ere. Erregeen konseju-emi-
lleak, orixe ziran magoak. Jakintsuak. Huston Zentro Es-
pazialeko jakintsuen antzekoak, denborak eta neurriak al-
datuz... Gizon ausartzak eta fededunak, itxaropenez ibilli
zirenak espero zutena lortu arte. Zorionekoak: abentura
egi biurtu.

ARRINDA'TAR ANES.

*Belen ganean dogu
Dizdira Izarra,
Borondate oneko
Gizonen iparra.
Biderako Argia
Ta maitasun-garra,
Aldatza igoteko
Umiller indarra.*

*Zeru eder guztia
Dago izerratu,
Belenera doiana
Zuzenbide artu,
Desagertutzen bada
Barriro biurtu,
Ta bide zuzenera
Giatuko gaitu.*

B. Pujana

BARRUKO-BAKE BIDEAK

Gaur dirala urte batzuk -gitxi gaiñera, amabost edo ogei bat geien jota- psikolojiaz eta psikologoetaz jardutzea guztiz arriskutsu lez geunkan; eta, sorginkerietan ibiliko balitza lez, obe gendualakoan gengoan jakituri ta mota orreitako pertsonakaz artu emonik ez izateaz. Sarritan entzuna dot onelako esakerea: "Kontuz, gero, orrelako gai ta gizonekin!".

Eta gaur, ZORIONEZ, ostera, bai bata ta bai besteak normaltasunez artzen doguz eta ziur gagoz bearbearrezkoak doguzana bizi dogun geure mundu eztabaidatsu onetan argituak eta geure izate berezietan baretuak edota baketuak izan nai badogu, beintzat.

Egia da. bai, jakituri eta jakitun onei buruz be azterketa sakon bat egiten aalegindu bear garana ea non sustraiturik dagozan jakin daigun, zein motako iturrietan edan izan dabezan euren jakintzaren urak, euren aurre-iritzi edo "prejuizioak" ezagutu daiguzan... eta, batez be, euren giza-mota-elburua zein dan zeatzmeatz ausnartzeko.

Baiña, sarreratxo onei amaiera emoteko, uste osoz esan daikegulakoan nago, eta geure aukerarik egokiena ta bikaiñena izango dogulakoan, Psikoloji-eskola ezbaridiñak batera datozan puntuak ezbaibarrik onartu bear doguzala.

Au dala-ta, geure idazlantxo onen neurriari dago-kionez eta oraintxe bertan esan dogunari lotuz, egi biren azalpena aurkeztera goiaz. Goazen, bada, arira.

1.- NORBERAK LANDUTAKO KONTZIENTZIA INDARTSU BATERI ESKER AGERTZEN DA BARRUKO-BAKEA.

Egin daigun argitasun pixka bat une onetan: "kontzientzia" itza erabilterakoan ez da gure asmoa "etika edo moral" maillan itzegitea, ez; ez doguz gogoan orain pekaturik-eza, ez; "kontzientzia" diñogunean auxe esan nai dogu: guretariko bakoitza bere barruan sartzen bada eta bere ingurua aztertzen badau, ainbat eta ainbat "gai eta gertakizunen jakitun" lez ikusiko dala, euren ikusle, entzule ta partaide dalarik.

Bai, geure barruan zer gertazen dan pixka bat konaturatu ezker -zenbat eta sakonago au egiñ, ainbat eta obetoago izango da geuretzat "NEU" baten izanaren amaitu ta ukatu eziñezko durundiaren egia agertuko jaku bereala, bera dalarik gertaera guztien zentzunemoille. Bai, "NEU" orixe dogu geure izatea pertsona

egiten dauana, edo-ta pertsona izatearen sustraia. "NEU" ori, "KONTZIENTZIA" ori da gogo guztien iturburu, egoeren argitzaille, guriaren zuzendari, erabagien eta ekintzen sortzaille ta zentzun-emoille. (Une onetan komenigarri ta bidezko da esatea gorputza dogula sortzen diran gogo guztien informaziño-emoille. Bera barik gu ezin gara eldu pertsonak izatera!).

Kontzientzian, adimenean, ulermenean edo-ta konortean sortzen dira forma guztiak; bera da galderagille ta erantzun-emoille. Emendikan kanpo, "ZER" izakien munduan gabiltza, gauzen munduan. Kontzientziari esker, "NOR" izatearen munduan, pertsonen munduan sartzen gara. Idazlantxo onetan barruko-bakeatzaz itzegiterakoan, garrantzi aundiko puntu bat ausnartzen ari gara jakin dakigulako gure naiak, gurariak, poz eta naigabeak, amets eta gogoak "NEU" orretan dabela euren asiarea, eustea ta irautea. (Argi gelditu daitela, bada, oraintxe azaldu dogun era onetara gagozala pentsatzen kontzientziari buruz emen idazterakoan).

Eta orain, geure premiñazko galdera: Eta "NEU" au zelan izan daiteke benetako bake-iturri?

Argi daukagu guztiok zelan eta zelako mundua bizi dogun: danok edo-ta geienok gabiltza presaka, urduri, estu ta larri, kezkatu, azkarregi, neurribako arantza-onantzean toki guztietara eldu eziñik eta zurrunbillo orren katetik eziñ urtenik. Mundua eziñ izango dogu aldatu... oso zaila ta konplejua dalako, baiña bai geure jokaerea aldatu geinkela naiz-eta mundu orren erdian bizi! Bai orixe! Egia onentzaz konturatzean datza geure barruko badearen ardatza!!!

Esan nai doguna azaldu daigun adibide batzuen birtatez.

Onela bizi dogu, esate baterako, geure izatea munduko arazoan erdian: "Goizeko bederatzietan ikastolara joan bear naz, eta amarretan Udaletxean batzartu bear naz, amabietan lantokian izan naiten; lantokian karta batzuk idatzi bear dodaz, sal-erosketen paperak gaurkotu... Eta onelaxe egun guztian eta egun guztietan zear. Salduta lez gabiltza, beti kanporantza begira, gauzak "urgente"ak diralako-garrantzizkoak diralakoan...

Ez, ez eta ez: Ainbeste zeregiñen artean "Zeu zarena be aaztuta daukazu!!! Arnasa-sakon-aldi bat egiteko astirik barik eta danera eldu nairik... Or zoaz, astiro-astiro ta kontuan jausi barik, orrelako jokabide baten ondorioak batzen: nekea, kirioen (nerbioen) irakiñaren

eragiñez, eta aonetan aiañ sarritan darabilgun "estres" zarkartsuaren menpean... geroago ta goibelago urduriago, asarre-gisan...

Aldatu daiguzan, bada, gure pentsakerea ta jokareea: Adibidez, leen azpimarratu dogun lez, "Ikastolara joan bear naz" esaterakoan, ez daiogun gauza bateri ("Ikastola"ri, gure kasu onetan) garrantzia emon, geure pertsoneri baiño (BA NOIA ikastolara; NEU NOIA Udaletxera; lantegira NOIA). Onela pentsatzen eta jokatzen ekiñ ezkeru, nai ta naiez, geure izate osoaren kontzientzia argitzen, zabaltzen, aunditzen eta obeagotzen joango da. Egoereak eta zeregiñak geure menpeko izaten asiko dira; gauzen tengadak neurtzen eta mozten ikasiko dogu; bear danean ezetza esaten be bai... Eta geure barruan beste giro bat sortzen joango da: lasaia-goa, bareagoa, zentzundunagoa ta nortasun geiagokoa. Une onetan esan daikegu barruko-bakearen iturriko urak urtetzen asi dirala geure pertsonaren aziak euren frutua ekarri aal izan dagien. Psikolojia eta psikologoek ziur dagoz orixe berori gertatuko jakuna!!

2.- BAIKORTASUNEZ EDO-TA POSITIBOKI JOKATZEAK BARRUKO-BAKEA-DAMOSKU.

Guztiok ondo be ondo dakiguna da au: Benetako maitasunak egiatzko zorientasuna dario.

Aurreko puntuan ikusi dogu zelan Kontzientziaturik bizitzeak eta jokatzeak NORTASUNA argitu, luzatu, zabaldu ta sakondu egiten dauan. Ori dala-ata, errezago ikasten da, egoerak eta gertakizunak azkarrago ta zeatzago gogoratzen dira, eta galdera-erantzunen eztabaideetan trebetasun berezi bat sortzen da. Dan-dana... **BAKE-ITURRI!**

Bigarren puntu onetan, eta berau be bake-emoile izan daigun, geure EKIÑAREN BAIKORTASUNARI, DOAITASUNARI nai dautsagu oratu, leen NEUri edota NOR orreri oratu dautsagun lez.

Bai, GU MAITASUNA GARA.

Maitatuak garanean eta maitatzen dogunean, gure bizitza osoa zentzunez beterik ikusten dogu; edozek betetzen gaitu eta edozerreri bere alderdi onak ataratzeko prest gagoz; atsekaberik aundienak be, beste era baten eroaten doguz bizkar gaiñean; gure begietara dizdiratasunezko argi berezi bat jatorku, eta gure ezpañetara irripar legun eta goxo bat agertzen da beure biotzeko bake orren ezaugarri lez.

Bestetara, ostera, maitatuak ez garanean eta ez dogunean maitazen... bereala agertzen dira arpegi garrazak, bekoki tximurruak, begi zorrotzak eta norberekerizko jokaerak. Geiago oraindiño: bizitza bera be zentzunbakoa aurkitzen dogun ezkeru, kanpoko gauzekin

(dirua, droga, sexua, poterea, arroputzkeria...) nai izaten dogu geure neurribako barruko poza lortu, eta geroago ta egarri aundiagoa sortzen jaku eta geiagotzen doian maskillo biurri baten eragiñetik urten-eziñik gelditzen gara. Guzti au barruko-bakerik-ezaren lekuko ta agerpena dogu. Psikoloji-jakituraren leenengo izki ta erakutsi oneik oraiñ arte esan doguna bizi izan dauan edonok egiztatu daiketz.

Geuk uste ez arren, ezkortasun (erderaz: "negatividad") bideetatik jokatzen dogun bakoitzean, geure izate osoaren aurka ari gara jokatzen. Adibidez: bekaizkeripean bizi bagara, geure aurka diardugu; gorrotz bada, bardiñ; ezkortasunak ezereztutuzera daroia bere erpeetan arrapatzen dauan guztia. Jokabide onen amaiera eriotza da, ezereza.

Au dala-ta, positiboki, baikortasunez bizitzen aalegindu bear gara geure aal-izateak egiztatu daitezcan. Sare bateko korapillo guztiak batzen dituana soka nagusia dan lez, doai guztiak batzen dituana be maitasuna da, bera dogulako doaietatik nagusia.

Eta, azkenez, ez litzaiguke txarto etorriko geuretari-ko bakoitzari galdera bat egitea eta bere erantzun ego-kiaren oiartzuna onartzea:

Zenbateraiño gara? **MAITATZEN DOGUN BESTE!!!**

Zenbateraiño gara? **MAITATZEN DOZUN BESTE!!!**

Eta GABON girorantza goiazan ezkeru, ondo be ondo etorriko jaku guztioi egun orreitako ezkutuki edo misterioaren aunditasuna ta edertasuna kontuan izatea: GU guztiok pertsonak egin gaituan Jaungoikozko NEU bat jatorku. Birjiña baten sabeletik jaioa, geuri dagoki-gun barruko-bakean beti bizi gaitezcan. Berak damoskun neurribako MAITASUNARI esker.

Laster entzungo dautsegu aingeruei esaten: "**BAKEA LURREAN BORONDATE ONEKO GIZONEI**". Bai, BERA DOGU GURE BAKEA!!!

ZORIONAK guztioi:

KEPA AGIRRE



EUSKO MIXIOLARIAK **PERU'N**

ARRUTI'TAR AGUSTIN

BIOZKADA.

Biozkada! Elebarri baten idazpurua dirudi. Eta, izan be, gure bizitza eten bako elebarria dala esan geinke. "Guk egin dogu egitekoa", esan oi dogu gure artean. Arri ta zur gelditzeko moduko gauzak egiten ditugu sarri askotan. Ara emen, adibidez, agiri argi bat:

Peru laterrian, joan dan gizaldian, Franzizkotar mixiolariak urrituz doaz. Eta an daukezan mixio zelaia oso zabalak, eta eginbearrak buruz gañekoak. Lana ugari eta langileak urri.

Zer egiñ? Zelan ase emengo kristauen fede egarria? Zelan bete erri askotatik sortzen dan mixiolarien eskabi-dea?

Sasoi ontan gure Euskal erria abadegai eta praillegaien baratz loratsua zan, izan be. Gure errietako baserri askotatik bi, iru, lau seme eleiz-ikasketak egiten izatea, etzan arritzekoa.

Ori gogora ekarririk Peru'ko Franzizkotarrak Euskadira begiak joko dituez. Eta auxe bai erabagi bitxia! Euskal errietako ikaste-etxeetan daukezan praille gai gazteak Peru'ra ekarri, eta emengo mixioetarako egokitu, moldatu eta gaitu.

Izan be Franzizkotarrak Kuzko, Kajamarka eta Loja urietan mixio-ikastetxe aukerakoak eukezan, baña erdi utsik. Nundik eta zelan bete?

Eta ara or, ba, egundoko biozkada! Biotz kementsu eta ausarditsuari ez arrazoirik, bururik eta txapelik ipiñi. Biotz gartsuak beti egingo ditu egitekoak.

Zelakoa izan zan mutiko gazte eta bigun onen etorkizuna? Geienak mixiolari ospetsu eta gartsuak izan ziran. Beste batzuk, ostera, praille biziera alde batera utzirik, dirubidea eta aberasbidea artu eben.

AIZARNAZABAL

Nork ezagutzen dau Aizarnazabal erri txiki, eder eta txukuna? Gipuzkoa'ko mendi eta zelai orlegietan zabalitzen ditu bere baserri baketsu eta gozoak. Erri ontan jaioa dogu Agustin Arruti mixiolari bikaiña, eliz gaietan maixu jakintzua, eta musikarari trebea (1884, urtarrillak 3).

Bere gurasoak, gartzetatik, Zarauz'ko Franzizkotarren ikastetxean jarri dabe. Emen nabaituko dau Jaunaren deia, eta mixioetarako kezka edo zer bat. Amabost urtekin bere izena emoten dau Peru'ko mixioetara joateko, eta beste ogei lagun gazteekin lurralde onetara etorriko da (1899).

Agustin izatez eta izakeraz ari oneko mutilla da, buru argiduna eta biotz zintzoduna. Emen bai esan bearko: "Etxe onak txingar ona".

Kajamarka urian, Franzizkotarren artean, praille profesari egiñ, eliz ikasteak amaitu eta apaiztasuna artzen dau (1907, irailak 1). Onezkero Agustin gizon gizon eginda dago eta etorri aundikoa emoten dau.

Bere nagusiak olako gaitasunak ikusirik Erroma'ra bialtzen dabe nazio-arteko San Antonio deritxon Ikastetxean filosofia ikasketak osatu eta obetutzeko. Gai ontan berebiziko maixu jakintsua izango da bere bizi guztian. Erromatik Friburgo'ko Ikastetxe Nagusira doa sikolojia eta natur-jakintza ikastera. Ikas-aldi ori amaitu barik, bere nagusien erabakiz, Peru'ra biurtu bearra izan dau.

EGIÑ ETA ERAGIÑ.

Gure eusko seme jatorra nor noragiñokoa dan emendik aurrera ikusiko dogu. Franzizkotarren Peru'ko Probintzia barrian ikastetxe guztien arduradun egiña izan da. Aita Arruti'k atondu eta zuzenduko ditu emengo ikas-arauak. Ezin esan alakoak dira eginbide ontan buruturiko ekiñaldiak: filosofia eta teolojia ikasketak bateratu, irakasle zintzo eta onak aukeratu, ikas-liburu onenak autatu, ikas-aldi garaia bete betean burutu. Orrela izango ditu mixiolari santu ta onak.

Begia bete lana izango dau beti. Ikasleen zuzendari izango da 23 urtetan; filosofia irakasle 35 urtetan; probintzialaren aolkari autatua amabost urtetan; eta beiñ baño sarrigo bere ordezkari. Bere goiburua auxe da: "Egiñ eta eragiñ".

Beti jokatuko dau zoli eta arduratsu ikasleen alde. Ikasgaiak emoten berebiziko maixutasuna dau. Au dala ta danak aintzat artzen dabe.

Bere ikasleen artean ospetsuenak Juan Landazuri, kardinala, eta Leonardo Rodriguez, Arekipa'ko gon-gotzaiña izan dira.

Musikarari zolia izanik Okapa'ko Abesbatzaren zuzendaria be izan zan.

Pedro Zulen filosofu jakintsuaren lagun aundia izanik bere azken egunetan autortza zintzoa eta eriotza ona izateko laguntzarik onena emoten dautso.

"Betiko itogiñak arriari zuloa". Aita Agustin naiz eta Txindoki'ko arkaitzak bezin sendoa izan, ekiñaren ekiñez etenda, nekearen nekez makurtuta, Lima uriburuan il zan 75 urtekin (1959, azillak 26).

Gure Agustin, eusko seme ospagarria, zeruan gerta bedi.

LIMA'TIK
URIGUEN'TAR ZENON.

Kontu zaarrak

ITAIA, OILLARA ETA KATUA

Gure arbasoek gauza arrunteen balioa obeto ezagutzen zuten guk baiño. Katuak ez du guretzako baliorik bat ere; itaiak aiña eta oillarrak baiño gutxiago. Ona ipui zaar batek zer dion iru gauza auri buruz.

Aita batek iru seme zitun langabezian eta munduan zear joatea erabaki zuten irurak. Aitak ondasun aundirik ez eta zeuzkanak eman zizkien: bateri oilarra, besteari gariak ebagitzeko itaia eta irugarrenari katua.

Ibilli ziran ibilli gau eta egun. Bigaramonez eldu dira erriska batera eta jende-moltoia topa zuten garia aizkorakin ebagitzen. Gure mutillak bere itaia erakutsi zien eta euren aurrean, unetxo batean, ebagi zitun gariok. Eros zioten itaia eta diruz ondo ornitu gure mutilla.

Pozik ekin zioten irurak bidean aurrera eta egunsentia baiño lenago gizonak lurra jotzen billatu zituzten beste erri batean:

—Zertan ari zerate? Galdetu zien euretako batek.

—Eguzkiari deia egiten; bestela ez dator-da.

— Nik daukat orretarako asmakizun ederra: zuek lo zaudetela, onek egingo dio eguzkiari deia eta etorriko da.

Jar'iz zuten oillarra ikulluan eta egunsentiaren aurretik, jo zuan oillarrak kukurruku eta eguzkia etorri ere bai. Pozaren pozez, eman zien saku bat bete urregorri eta zilar. Aberastuta pozik joan ziran aurrera.

Irugarren erriarekin topo egin zuten illunabarrean. Xaguz eta arratoiez betetako auzoa zan eta erritarrek zebiltzan eurok akabatu eziñik arrika eta makilka. Mutillak atera zuan sakutik bere katua eta tximistak bezin arin arrapatu zituen guztiak. Poztu zirean erritarrok eta nai dan beste diru eman zien katuaren orde. Arrezkero ez dute arrika ibilli bearrik xaguak eta arratoiak akabatzeke; katuak dauzkate ondo asko zaindutakoak.

Gure mutillok Ameriketara joan bearrik ez aberasteko eta etxera biurtu ziran.

ARRINDA'TAR ANES.

*Ain da indar andiko
Izarren argia,
Herodes-ek iskindu
Bere Jauregia,
Jesus-en erantzuna
Nitzat larregia,
An euki ebalako
Ume iltegia.*

*Mundua askatu zan
Jesus etortean,
Baña etzan on artu
Andien artean,
Bi milla urte eta
Gizonak katean,
ia apurtzen diran
Aurtengo urtean.*

*Etorri da Mesias
Egon giñana zain,
Herodes be artzeko
Jarri jako apain.
Jesus-ek susmaturik
Salketaren usain,
Naiago izan zitun
Abera ta artzain.*

*Munduari dabiltzanak
Beti zuzen pausuz,
Guzurrez epaituta
Kartzeletan dozuz.
Gizonak askatzeko
ordenak dakazuz,
Munduan egiteko
Naiko dozu Jesus.*

ARDURAZ...

Euskalerriko Udal-Batzak, Lekeitio, Ordizia, Mundaka... eta toki orreitarako erritarrak arduraz asi dira, len Yugo-slabia izan zan eta orain anai-arteko gudan dabilzan lurraldeko Bosnia'tarrak artzeko. Lurralde aretatik iges eginda datozen atzerritarren alde laguntasuna emoteko eskaria egin dabe. Idaz-lan au idazten dogun une onetan arazoak ugari dagoz, eta diru-arazoak be oraindiño erabagi barik. Gizabideko lan eder oneri eragozpen aundiak agertzen jakoz.

Asmakizun au zorrotza ta arduratsua da: negu latza urreratzen jakun une onetan, ango bizikerea dala-ta zurrumuru txarrak eta nasketa bildurgarriak eldu dira gure be-larrietara. Lurralde aretan antxiñakoa dan bateratu-eziña gaiñeratu da orain. Yugo-slabia'ko lurraldeetan bizi diranak errukarri agertzen jakuz.

Egoera onek Bizkai'ko ta Gipuzkoa'ko udal batzutan kezka larriak sortu dauz eta or daukaguz erri adoret-suak egoera orretan dagozanai laguntza eskintzen: Lekeitio, Mundaka, Ordizia... Bozniatarrai laguntza eskintzeko eskaria egin dabe.

Eta udal-Batzak egindako eskintzak ondo agertzen dau abegi ta txera ona, eta euren etxe-barruan ango atzerritar-rrak artzeko gertu agertzen dira.

Orretarako, trebeen eta gogo-iztilarien argibideak bi-llatzen dabez eta emon be egingo jakez, laguntza au al danik ondoen, kalterik egin barik, eskiñi dagien.

Zori txarrez, erabagi oneik egokiro artzeko, burokrazia oiñarri dala, gertakuntzak asko luzatzen dira. Or azpi-egitura egoki bat sortu nai da eta zeregin onek ekintza bete-tea atzeratu egiten dau.

Orrez gaiñera, ekintza aurrera aterateko, España'ko agintarien baimena eta Yugo-slabia laterriko buruzagiena bear dira eta gero etorri bear diran sendien baietza.

Orrelan ba, emengo erritarrak eta Udal-Batzak euren gurari ona agertu arren, ezin jakin ekintza ori noiz eta zelan betetuko dan. Orrelan esan dau argi ta garbi Bil-bao'n Cear'eko buruzagi batek. Ekintza aurrera eroan bear

dabenak, orretarako sortzen diran erakundeakaz artu-emonetan jarri bearko dira.

Ori beteten dan artean, bizkaiatarrok jakin dagigun gure artean milla baiño geiago dirala Irugarren Munduko umeai laguntzen dauksen sendiak, baiña gai oneri buruz datorren illeko ZER aldizkarian idazlantxu bat idatziko dot, nire lagun dodan margolari batek egingo daustan margo-irudi eder bat ondoan dala.

Izan dagigun guztiok beti gogoan, iñon aitzu barik, az-keneko epai-egunean Epai-kari Nagusiak esango dauan berbea: "Sartu zaiteze Jaunaren atsedeen-lekura".

Azken-oarra: Nik idazlantxu au idaztea amaituta DEIA izparringian irakurri dot, Bosnia'ko talde batzuk Euskalerrira etortea onartuta dagoala eta geroago beste iz-parringi baten Mundaka'k ogei Bosnia'tar igeslariak artu-ko dauzala, sei illebeterako.

LETONA



*Jesus etorri jakun
Danok askatzeko.
Gabon oshatze n dogu
Au gogoratzeko.
Baña urte danetan
Jazo egiten jako,
Aurkitu artzain gitxi
Ta Herodes asko.*

*Urtea joan eta
Urtea etorri,
Beti Gahon-jaietan
Dogu Urtebarri.
Diñogun lez ha'gara
Zorion egarri,
Besarkada bat emon
Guztiok alkarri.*

GUZTIOK MIXIOLARI

Apostoluek izan ziran antzera, geuretako bakoitzak ere, Jesus'en Eleizean, mixiolari izan bear dogu. -"Zuek zerate -dio Jesus'ek- argia eta gatza..." Argia, illunpetan dagoen munduari, argi egiteko. Eta, gatza, bizirik, usteldu gabe, munduari iraun arazteko...

Mundu berri baten azia ere bagera; baita iriñetan ipintzen dan legamia ere... Argia, gatza, azia, legamia: Orra zenbat gauza batera...!

Xabier'ek urruneko Indietara jo zuan Jesus'en Berri Ona eramatera. Eta, andik miñez idazten dau, Paris'en ainbeste jakitun bizi zirelako, indietara bere jainkoaren berri eramaten saiatu gabe.

Apostoluek Jerusalem'dik asi ziran Jesus'en Berri Ona zabaltzen; baña, andik aurrera jo zuten, munduan zear, Eleiza berriak sortzen.

San Pedro Erroma'raiño eldu zan. An sortu zuan Jesus'en Eleiza eta bertako Gotzaia izan zan. Arrezkero, Pedro'ren ondorengo Gotzaiek, Aita Santu izango dira eta Eleizearen buru.

San Pablo -Saulo zuan bere izena- gaztaroan gorroto bizenaz kristauen aurka ibili zan. Jerusalem'go kristauak kartzelan sartzen saiatu zan. Geroago orixe bera egin nai izan zuen Siria'ko Damasko deritzan uri nagusian. ara zijoala, bidean Jesus agertu zitzaion: - Saulo, Saulo, zergaitik zabilta nere aurka? -Zein zeera zu? -Ni Jesus naiz...

Egun artan itzuli osoa egin zitzaion Saulo'ri bere bizikeran gorrototik maitasunera biotza pasatuz, erasotzallea Apostolu bihurturik. Arrezkero lanik aundiena berak jaso zuan apostolu lanetan, batez ere jentillen artean.

San Pedro, Santiago eta San Juan'ek judutarren artean zabaldu zuten Jainkoaren Erreinua dan Jesus'en Eleizea: Saulo'k berriz, jentillen artean. Baña, judutarren arteko kristau egin ziran zenbaitzuk, jentillak, kristau izateko, Judutarren Legea artu bear zutela, esaten zuten. Oien aurka jeiki zan Saulo (San Pablo)... Sortu zan eztabaida argitzeko, Jerusalem'en Konzilio bat egitea asmatu zuten. Otoitz egin ondoren, auxe da artutako erabakia: -Kristau egindako jentillei pakean uzteko.

Saulo (San Pablo) Siria, Turkia eta Grezia'ko errietan ibili zan jentillen artean kristautasuna aldarrikatzen... Gero, Jerusalem'dik Erroma'ra preso eramán eta an ezpataz lepoa moztu zioten. San Pedro, berriz, Batikano'ko muñoan gurutzean josi.

Espiritu Santuaren garrak eragiten zien Apostoluei eta gar orrek frutu ederrak eman zituen: Millaka kristau egin ziran eta Berri Ona erein zuten munduan zear... Gotzai, apaiz eta kristau guztiek zabaldu zuten Jesus'en Jainko-Erreinoa eta gaurko kristauak geu gera. Geuk zabaldu barko degu Berri-Onaren Eleiza, geu bait gera Jesus'en oin, esku eta ezpañak...

ERROMES DOAN ELEIZA, JAINKO-ERREINUA-REN EZAUGARRI

Aitarengana joan zan Jesus'ek, berriro etorriko dala, agindu zigun. Bitarte orretan bere Eleizea erromes doa Jesus'en bidera, mundu eta gizaldietan zear. Espiritu Donea, bere argi eta indarez, Eleizearen eutsigarria da, onek aurrera egin dezan beti bere eginbearra betetzen, pakealdian bezala eraso-aldietan ere.

**x

Eleizearen lana, Espirituaren grazi-laguntzarekin egitekoa, auxe da: Jaunaren Berri Ona munduko baztar guztietan otsegin eta zabaldu, Kristauen sinismena eta maitealkartasuna gorderik.

Onela zion Jesus'ek:

Zoazte mundu zabalean zear Berri Ona aldarrikatzerá. Sinistu eta bataiatzen dana, salbatuko da...

Arrezkero Eleizarako atea Bataioa da. Bataiotik asten gera guztiok bat izaten: Bataio bat, Sinismen bat, Jaun bat, Eleiza bat... Poz eta naigabe artean, Jesus'en itzulerean zai, itxaropenez beteta, aurrera doan Eleizea... Ura itzultitakoan, orduan aitortuko dute, zeruan eta lurrean eta lurpeetan, Jesus dala Jauna, Aita Jainkoaren aintzarako.

Eleiza Jainko Erreinuaren ezaugarria da, baña judutarentzako ostopo izan zan eta jentillentzako txorokeri bat. Sakramentua da: kanpotik ikusten dan seiñale bat; barruko ikus-eziñak adierazten dituguna. Sakramentuak sinismena eskatzen du; sinismentik gabe ostopo eta txorakeri gertatzen da...

Jainko-Erreinoa santua da eta Eleizea ere bai Jesus bere sortzaillea santua dalako, erakutsiak eta sakramentuak santu diralako... Baña, Eleizea aurrera eramaten saiatzen diran kristauak ez dira santuak, santutasun bidean jarrai nai duten gizakiak, baizik... Oñarri oñarrian, pekatarri utsak, ergel utsak, ezjakin utsak... Alaz ere, "nire argaltasunean ezagutzen da Jainkoaren indarra", dio Pablo'k... Benetako ezaugarria Eleizan eragiten duan Espiritu Donea da...

Jainkoak bere ezaugarriak banatu ditu gizakien begien aurrean: Izakia bera da bat: "Jainkoaren ikusi-eziñak, Berak egin dituenai begiratuta, ikusten dira", dio Pablo'k. Ori berbera, ikus nola esaten duen Gurutzeko Joan Santuak: " Paso por estos sotos / con presura / y hi ndolos mirando / con solo su figura / vesstidos los dejo de su hermosura".

Israel Erria izan da beste agerpen bat bere Bibliaren Testamentu Zaarrarekin. Baña, ezaugarriak argiena Jesus berbera izan da, naiz-eta askorentzat ostopo gertatu. Jesus'en ondoren Eleiza...

Asieran esan degu, bataiatu ezkerok, geu gerala Eleiza. Geu gera ezaugarriak, sinismenten eta maitasunezko bizitza daramagunean; ostopo ere bai, okerkerian bizi ba'gera. Geu gera, ekaitzetik ermitatxora, babes-billa, datorren kala-txoriak atarian billatzen duen burni-esia... Eleizan sartu nai du, arengan sinistu nai du, baña... gure bizikera ikusi-ta, atzera egiten dio biotzak.

BAKOITZA BERE LANERA JAINKOAREN ERREINUA JASOTZERA

Jesus'ek Eleizari bere Espiritua bialdu zion eta, arrezkero, Espiritu Done oNek darabil Eleiza gizaldietan zear. Argi, jakinduri eta maitasunezko doaien emaillea dogu. Espiritua bakarra izanda ere, bere doaiak asko dira, eta bakoitzari doai berezia ematen digu. Guztiok balio degu zer edo zertarako; iñork ere ez, gauza guztietarako.

Espirituak berak nai duen eran eta neurrian banatzen ditu bere doaiak: Bakoitzari berea, Eleiza danon artean oatu dezagun.

Gorputz bakar bat gara Jesus eta gu. Gorputz orren Espiritua ere bakarra da. Geure gorputzean atalak dauden antzera, daude atalak Eleizan; baña, ez guztiak berdiñak. Ez gara guztiok oin; ez esku ta ez begi... Gorputza osatzeko danetarikoak bear dira.

**

Iru talde nagusi ikusten ditugu Eleizan: Sekularrak, apaizak eta erlijiosoak. Talde bakoitzean bereiztasunak daude.

Sekularrak dira ugarienak eta munduko lanetan dute euren ogi-bidea; geienak eskondu egiten dira eta euren etxea aurrera eramaten igarotzen dute bizia-elkarteetako lanetan diardute...

Apaizak Gotzaiaren laguntzaille dira Eleizbarrutiaren lanetan: Errietako parroketan, gotzaitegian, kapellautzan... eta lan oietan dute ogi-bidea.

Erlijiosoak, giza-emakumeak, elkartean bizi dira ekin-tza bereizietarako: Gaxotgietan, eskoletan eta abarretan. Baita otoitzean, lanarekin batera. Ora et Labora, Otoitz eta Lan, da auen ikurra...

* **

Eginkizun eta serbitzu auek, eta beste zenbait, betetzeko, talde bakoitzari (talde bakoitzean kristau bakoitzari) doai eta karisma edo gaitasun bereziak ematen zaizkio. Zertarako? Eleiza, edo Jainkoaren Erreinuaren alde, lan egiteko. Mota askotako gaitasunak dira, mundu onetako eginbearrak asko diranez... Talde bakoitzari bere karisma bereziak eta talde-barruan bakoitzari berea...


Eleiza, bere sorreratik, Jesus'en Espirituak darabil eta onek erein ditu gaitasun ta karisma ezberdin oiez, serbitzu ezberdiñak bete aal izateko...

Euskalerriko Elizbarrutietako Gotzaiak Iruña, Gazteiz, Bilbo eta Donostia'n bizi dira. Bakoitzak baditu apaiz-moltsoak... Erlijiosoak ere ez dira falta:

Monastegiak: Gizonezkoak: Beditarrak: Nafarroa'n 1 Leire; Araba'n 1 Estaibalitz; Gipuzkoa'n 1 Lazkao.

Zizterrekoak: Nafarroa'n 1 La Oliva; Bizkaian 1 Zior-tza. Emakumezko Monastegiak: Beditarrak: Nafarroa'n 2 Lizarra eta Lumbier; Gipuzkoa'n 1 Oñati. Zizterrekoak: Nafarroa'n 2 Oñati eta Tulebras; Gipuzkoa'n Lazkao; Araba'n 1 Oion. Otoitzari emandako ordenak: Danetara 5 gizonezkoenak eta 99 emakumezkoenak... Auek Jesus'en agindua betetzen dute: "Etengabe otoitz egin".

IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko
Kutxa. Bere berbea bete
eta zure bear-izanak
ulertzen dauzan Kutxa.
Etorkizunera zabalik dagoan
Erakundea, etenbako
gora-gogoagaz
bere erriko jenteari
laguntza-gai osoak
eskintzen dautsozana.
Beti dago zugandik ur
izkuntza bakar baten
alkar ulertu daikegun.*

BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa

150 PEZETA